

## **ERRENTERIA / Lekuona okindegiko eraikina itxi egin dute, liburutegiko lanak egiten hasi arte**

**Uneotan erabilerarik ez duen eraikinean jenderik ez sartzeko hartu du erabakia Udalak**

Jon Gonzalo

OARSOALDEKO HITZAK jakin duenez, Lekuona okindegiko arduradunek Olibet auzoko egoitza zena utzi zutenetik ezezagun asko eraikinean sartu eta kalteak sortu dituzte.

Horrelakorik berriro gerta ez dadin eraikina behar bezala ixteko erabakia hartu du Errenteriako Udalak. Ateetako eta leihoetako segurtasuna hobetu dugu. Hartara, ezezagunek ezin izango dute eraikinean sartu eta ez dute kalte gehiago sortuko, jakinarazi diote HITZari Udaleko iturriek.

Izan ere, Lekuona okindegiko eraikinean liburutegi berria egitea da Udalaren asmoa, eta proiektu hori gauzatzen den arte, eraikina ahalik eta hoberen mantendu nahi dute.

### **Liburutegi berrirako 21 proiektu aurkeztu dira**

Lekuona okindegiaren eraikina berriro eta haren lekuan liburutegia eraikitzeke deialdia uda aurretik egin zen, eta hainbat arkitektoen erantzuna izan zuen. Guztira, 21 arkitekto aurkeztu ziren eraikina eraberritzeko deialdira.

Errenteriako Udaletik jakinarazi dutenez, liburutegi berria eraikitzeke lanek 6,5 milioi euroko kostua izango dute. Eraikin berriak, 1.200 metro koadro eta liburutegi moderno baten zerbitzu guztiak izango ditu: mediateka, hemeroteka, haurrentzako ludoteka...

Halaber, liburutegiaren azpiko aldean, 110 autoentzako aparkalekua egingo dute. Kulturaren inguruan, herritarrak elkartzeko gune bat izatea nahi dugu, herriko bizitza are gehiago aberastuko duena, azaldu dute Udaleko ordezkariak.

### **Proiektuak aztertzen**

Errenteriako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak uda aurretik jasotako proiektuak aztertzen ari dira uneotan.

21 proiektu aztertu behar ditugu, eta horrek luze jotzen du. Batez ere, aurkeztu diren lanak mardulak eta xehetasun asko jasotzen dituztenak direlako, azaldu dute Hirigintza Sailetik.

Nolanahi ere, proiektu guztiak aztertzean aukeraketa bat egiteko asmoa dute Udaleko arduradunek. Hirigintza Sailetik jakinarazi didatenez, aukeraketa bat egiten dutenean, proiektu onenen berri emango digute eta gai honetan zeresana dugun eragile guztion artean aukeratuko dugu behin betiko proiektua, azpimarratu du Joxe Mari Burgos Kultura zinegotziak.

## **Epeak, ahalik eta laburrenak**

Gisa honetako proiektuek luze jotzen dute, baina epeak ahalik eta gehien moztea da Udaleko arduradunen asmoa. Izan ere, Eusko Trenek herri erditik pasatzen den trenbidea zabaltzeko asmoa du, eta lan horiek Madalen kaleko liburutegiari eragingo diote. Trenbidea zabaltzeko, Madalen kaleko eraikinaren erdia bota behar dute, eta lan horien ondorioz hilabete batzutan liburutegirik gabe geldi daiteke herria.

Liburutegi berriko lanak ahalik eta azkarren hastea komeni da, Madalen kaleko liburutegi zaharrak iraupen mugatua duelako. Horregatik, hilabete batzuetan prozesu guztia martxan jartzea espero dugu, azpimarratu du Joxe Mari Burgosek.